

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**Diputatuen Kontseiluaren 703/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, onartzen dituen 2016ko lehiaketa bateratuaren deialdia eta oinarriak toki administrazioiko funtzionario estatu osorako gaituentzat gordetako lanpostuak betetzeko**

Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen bigarren xedapen gehigarriaren zazpigarren paragrafoaren arabera (7/1985 Legea, apirilaren 2koa) –Toki administrazioaren arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzko Legeak emandako idazketaren arabera (27/2013 Legea, abenduaren 27koa; TAAIL)–, estatu gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioei buruzko araudia, lege honen 92. bis artikuluan eta harekin lotutakoetan ezarritakoa, hauekin bat etorritik aplikatuko da: Konstituzioaren lehenbiziko xedapen gehigarria, Konstituzioaren 149.1.18 artikulua eta 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko estatutua onartzen duena, kontuan hartuz, betiere, funtzionario horiei buruz aurreikusten diren ahalmen guztiak erakunde eskudunek edukiko dituztela, autonomia erkidegoko araudiak ezarritako baldintzen arabera, horien artean delarik autonomia erkidegoaren lurraldean hutsik diren plazetarako deialdia egiteko ahalmena, lurralde horretarako bakarrik, bai eta lehiaketa horietan funtzionarioak izendatzeko ahalmena.

Kontuan hartuz, alde batetik, TAAILaren zazpigarren xedapen iragankorraren lehenbiziko paragrafoan jasotzen den aurreikuspena: “harik eta indarrean sartzen den arte 7/1985 Legearen 92. bis artikuluan aurreikusitako erregelamendua (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen), eta lege honetan xedatutakoaren kontra ez doan guztian, erregelamendu indarra izaten dirau artikulua horren aplikazio eremuan sartzen diren funtzionarioei buruzko araudiak”, eta, beraz, kontuan harturik Euskal Autonomia Erkidegoak ez duela onartu oraindik gai horretan eskumena duen erakundea zein den determinatzen duen araudia, aplikatzeko da oraindik TAOLaren zazpigarren xedapen gehigarriaren idazketa berriaren araudia, hau da uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretua, toki administrazioiko estatu osorako gaitasundun funtzionarioentzat gordetako lanpostuen hornidura arautzen duena, zeinak ezartzen baitu lurralde historikoetako foru erakundeei dagokiela lehiaketa bateraturako deialdia egitea eta hura ebatzea.

Era honetan, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuan jasotzen diren aurreikuspenez gainera, honako hauek aurreikusten direnek ere arautuko dute lehiaketa hau: TAOLen 92. bis artikulua (erkidego honetarako aplikagarriak baldin badira) eta bigarren xedapen gehigarriko zortzigarren idatz zatia; 1994ko abuztuaren 10eko Agindua, zeinak estatuko gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak betetzeko lehiaketei buruzko arauak ematen baititu; eta 1994ko irailaren 8ko Agindua, estatuko gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak betetzeko ohiko lehiaketen baterako deialdiaren eredia eta haien oinarri arau erkideak onartzen dituen.

Badirenez Arabako Lurralde Historikoan estatu gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostu hutsak, lehiaketan nahitaez sartu beharrekoak, aipatutako araudian ezarritakoa aplikatuz, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

## ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Lehiaketa bateraturako deia egitea, estatu gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostu hutsak betetzeko. Hona hemen lanpostu horiek:

	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	AGINDUZKOA EDO MEREZIMENDUA
<b>2. MAILAKO KONTUHARTZAIETZAK</b> (Azpieskala: kontuhartzaitza-diruzaintza, Kategoria: Sarrera)		
Amurrioko Udala	4	Aginduzkoa
<b>DIRUZAIETZAK</b> (Azpieskala: kontuhartzaitza-diruzaintza, Kategoria: Sarrerakoa edo goragoko mailakoa, bata zein bestea)		
Vitoria-Gasteizko Udala	4	Aginduzkoa
Laudioko Udala	4	Aginduzkoa
<b>3. MAILAKO IDAZKARITZAK</b> (Azpieskala: Idazkaritza-Kontuhartzaitza)		
Alegria-Dulantziko Udala (titularraren erretiroa, 2017-03-01)	4	Aginduzkoa
Aramaioko Udala	4	Aginduzkoa
Arraia-Maetzuko Udala	3	Aginduzkoa
Lapuebla de Labarcako Udala (titularraren erretiroa, 2016-11-21)	4	Merezimendua
Gaubeako Udala	4	Aginduzkoa
Zambranako Udala	4	Merezimendua
Lagrán-Harana elkarte	3	Aginduzkoa
Lantziego-Bilar-Kripan elkarte	4	Merezimendua
Leza-Navaridas elkarte	4	Merezimendua
Moreda Araba-Iekora elkarte	4	Merezimendua
Zalduondo-Añana elkarte	3	Aginduzkoa
Aiarako Kuadrilla	4	Aginduzkoa

Bigarrena. Lehiaketa bateratua I. eranskinean jasotzen diren oinarrien arabera egingo da.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 3a

*Diputatu nagusia*  
**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta  
Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*  
**MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*  
**IÑAKI GUILLERNA SAENZ**

## I Eranskina

### Oinarriak

#### Lehena. Parte hartzea

1. Estatu gaikuntza duten funtzionarioek aukeran izango dute beren sailkapenaren arabera dagozkien azpieskala eta kategoriako lanpostuen lehiaketetan parte hartzeko.

Parte har dezakete irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorraren 1. puntuan (gaikuntza nazionala duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoarena) aipatzen diren toki administrazioko idazkari, kontuhartzaile eta diruzainen lehengo kidego nazionalako partaideek ere, oraingo azpieskaletan sarturik ez egon arren, ondoko modu honetan:

– Hirugarren mailako idazkariek, idazkari-kontuhartzaileen azpieskalarako gordetako lanpostuetan.

– “Iraungitzeko” dauden udal idazkariak, bakarrik 2.000 biztanle baino gutxiago dituzten udaletako idazkaritzetarako.

2. Nolanahi ere, dagokien azpieskalan eta kategorian eskainitako lanpostu guztietarako lehiatu beharra daukate behin-behineko izendapena duten funtzionarioek eta irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuaren 53. artikuluan aipatzen diren baldintzak direla-eta izendapenaren zain daudenek.

3. Ezingo dira lehiatu:

a) Funtzionario ezgaituek, epai edo administrazio ebazpen irmoagatik aldi batez kargurik gabe utziek, epaien edo administrazio ebazpenean ezarritako denbora igaro artean.

b) Toki Araubidearen arloan indarrean diren lege xedapenen testu bateginaren 148.5 artikuluan aipatzen diren funtzionario kargutik kenduek, kargutik kenduta egoteko aldiak hartzen duen epean (781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa).

c) Borondatezko eszedentzian –urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako langile publikoaren oinarriko estatutuaren Legearen testu bateratuak, 89.1.a) eta b) artikuluan jasotako baldintzetan– dauden funtzionarioek, baldin eta egoera horietan egoteko gutxienerako lege epea igaro ez bada.

d) Edozein administrazio publikotan behin betiko destinoa lortu eta lanean bi urte eman ez dituzten funtzionarioek, salbu eta dauden korporazioan eta duten azpieskala eta kategoria berberean eskaintzen diren lanpostuak lortzeko lehiatzen badira, edo abuztuaren 2ko 30/1984 Legeak, funtzio publikoa eraldatzeko neurriei buruzkoak, 20.1.f) artikuluan azaltzen diren kasuetan badaude.

e) Lanpostutik kendutako funtzionarioek, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92.bis) artikuluko 11. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorriz, zigorra jarri zion korporazio bereko lanpostuetara, zigorrak dirauen bitartean.

#### Bigarrena. Parte hartzeko dokumentazioa

1. Nazioko gaikuntza duten funtzionarioek hamabost lanegun izango dituzte, lehiaketa BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Beste Administrazio batzuekiko Harremanetarako Azpizuzendaritza Orokorrean, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusian (Ogasun eta Administrazio Publikoetarako Ministerioko Agirien Sarrera Erregistroa. María de Molina kalea, 50. 28071 - Madril) edo Ogasun eta Administrazio Publikoetarako Ministerioaren egoitza elektronikoaren bidez (ACCEDA. Procedimiento: Solicitud de participación en el concurso unitario; helbidea: <https://sede.administracionespublicas.gob.es/>) agiri hauek aurkezteko:

\* Parte hartzeko eskabidea, zinpeko adierazpen honekin batera: ez dagoela sartuta uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren 18.3 artikuluan aipatzen diren egoeretako batean ere.

\* Euskara jakiteko baldintza betetzen duela egiaztatzeko agiriak, baldin eta aginduzkoa bada jakitea eta dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta badauka; orobat autonomia erkidegoek ezarritako merezimenduei dagozkien egiaztagiria ere.

\* Euskara badakiela egiaztatzeko agiriak, merezimendutzat hartua bada.

\* Esleipenen arteko lehenetasunen hurrenkera, bi lanpostu edo gehiago eskatzen badira.

Lehenetasun hurrenkera ezingo da aurkeztu, inolaz ere, lehiaketan parte hartzeko eskabidearen ordez.

2. Parte hartzeko eskabidea oinarri hauen amaieran ageri den ereduaren arabera aurkeztu beharko da.

3. Eskatzen diren eskakizunak, bai eta merezimenduak ere, deialdia EAOn argitaratzeko agintzen duen ebazpena argitaratzen den egunean eduki beharko dira.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko lanpostuak bakarrik eskatzen badira, eskabide horiek eta dagozkion agiriak Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko eta Administrazio Erregistroekiko Zuzendaritzari igorri beharko zaizkio (Donostia kalea, z.g., 01010-Gasteiz).

#### **Hirugarrena. Balorazio epaimahaia**

1. Euskal Autonomia Erkidegoaren eremurako eraturako epaimahai bakar batek egiaztatuko du euskara maila eta baloratuko ditu autonomia erkidegoak ezarritako merezimenduak; Euskal Autonomia Erkidegoan eskumena duen organoak erabakiko du nortzuk izango diren epaimahaiko kide eta berak jakinaraziko du hori jendaurrean.

2. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari batek (IVAP) parte hartuko du balorazio epaimahaian, euskara badakiela egiaztatzeko probetarako bakarrik.

#### **Laugarrena. Merezimenduen balorazioa**

1. Balorazio epaimahaiak egiaztatuko du ea lehiatzaileek betetzen ote dituzten deialdian ezarritako baldintzak, eta baztertu egingo ditu betetzen ez dituztenak.

Ondoren, baztertuak izan ez direnen merezimenduen puntuak ezarriko ditu, honela:

\* Merezimendu orokorreari dagokien balorazioa deialdi honetan argitaratutako zerrendatik aterako da, eta lehiatzaileek ezingo dute egiaztatu besterik ezer eta epaimahaiak ezingo du baloratu besterik ezer.

\* Autonomia erkidegoak ezarritako merezimenduen balorazioa lehiatzaileek eurek aurkeztutako egiaztagirien arabera egingo da.

\* Euskarari dagokion balorazioa, aginduzkoa ez denean.

2. Euskararen balorazioa, merezimendua denean, honela egingo da:

– 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzea: 5,70 puntu.

– 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzea: 4,28 puntu.

– 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzea: 2,85 puntu.

– 1. hizkuntza eskakizuna egiaztatzea: 1,43 puntu.

Deialdian eskaintzen den lanpostuaren hizkuntza eskakizunerako zenbat puntu aurreikusten diren, horixe izango da euskararen merezimenduaren balorazioa, gehienez.

Hori dela eta, hizkuntza eskakizun bat edo batzuk egiaztatzeko probak egin nahi dituzten lehiatzaileek berariaz jakinarazi beharko dute lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidean.

Proba horiez gain, beste era honetan ere egiaztatu ahal izango dira hizkuntza eskakizunak: IVApek emandako ziurtagiriaren bidez edo apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan aipatutako bitartekoen bidez (Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena; 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena). Dokumentazio hori lehiaketan parte hartzeko eskabidearekin batera aurkeztuko da. Parte hartzeko eskaera egin eta gero lortzen diren euskararen ezagupenaren egiaztagiri edo tituludun pertsonak egiaztagiri edo titulu horiek aurkeztu ahal izango dituzte balorazio epaimahaiak lanpostuak esleitzeko proposamena egin baino lehenago.

3. Merezimendu orokorren gehieneko puntuazioa 19,50 puntu izango da, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren 15. artikuluan eta 1994ko abuztuaren 10eko 1. artikuluan jasotzen den baremoaren arabera banaturik.

4. Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluaren 1988ko azaroaren 8ko erabakiarekin bat etorritik (azaroaren 12ko 212. zk.ko EHAA, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarriko 8. idatz zatiari dagokionez), honela banatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoari jartzea dagokion merezimenduen 9 puntuak:

– 6 puntu, gai hauen inguruan zer dakien eta zer lan egin duen baloratzeko: autonomia estatutua, eskubide historikoak, autonomia erkidegoko erakunde sarea arautzen duen araudia eta hizkuntza normalizazioaren plangintza, bereziki herri administrazioetan dagokion aplikazioa.

– 3 puntu, kontzertu ekonomikoaren ondoriozko berezitasun ekonomiko-administratiboei buruz zer dakien eta zer lan egin duen baloratzeko, eta, beraz, toki ogasunen gaiari eragindako ondorioei buruz ere bai.

Autonomia erkidegoak ezarritako merezimendu horiek honela egiaztatuko dira:

a) Gai horiei buruzko ikastaro, jardunaldi, biltzar, mintegi eta gainerako foroetan parte hartu izana egiaztatzen duten agiriak.

b) Espezialitate horiei buruz argitaratutako argitalpenak eta lanak.

c) Berezitasun horien inguruko jardunaldi eta ikastaroetan parte hartu izana hizlari edo irakasle gisa.

5. Merezimenduei buruzko azken puntuazioan lehiatzaile biren edo gehiagoren arteko berdinketa gertatuz gero, epaimahaiak, esleipen proposamena egiterakoan, lehentasuna emango dio autonomia erkidegoak ezarritako merezimenduengatik puntuaziorik handiena lortu duenari. Hala ere berdindurik jarraituz gero, merezimendu orokorretan uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren 15.1 artikuluko a), b), c), d) eta e) ataletan –hurrenkera horietantxe– puntuaziorik handiena duenari. Bestela ezin bada, berdinketa hautaketa prozesuko lehentasun hurrenkeraren arabera ebatziko da.

#### **Bosgarrena. Ebazpen proposamena**

Epaimahaiak lehiatzaileak, lehiatzaileen arteko baztertzea eta onartzea egin ondoren, eta baztertuan artean azken puntuazioa ezarri ondoren, ebazpen proposamena igorriko dio Foru Aldundiari, baztertuak izan ez diren guztiak jasotzen dituela eta haien arteko puntuazioa handienetik txikienera antolatuturik, bai eta baztertuen zerrenda ere, azalduz zergatik izan diren baztertuak.

#### **Seigarrena. Izendapenak koordinatzea**

Lehiatzaile baten alde hainbat izendapen egin eta antolatu behar badira, interesatuek agertutako lehentasun hurrenkerari jarraituko zaio.

#### **Zazpigarrena. Ebazpena**

Hala antolatutako emaitzen arabera, Foru Aldundiak lehiaketa ebatziko du, eta autonomia erkidegoan dagokion organoari igorriko dio; hark, ondoren, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari igorriko dio.

**Zortzigarrena. Lanpostuaz jabetzeko epea**

1. Lehiaketan eskuratutako destinoez jabetzeko epea hiru egun baliodun izango da, herri berean lortutako lanpostuak badira, edo hilabete, beste herri batean lortutako lehenbiziko destinoa edo lanpostuak badira.

Epe hori kargua utzi ondoko egunetik aurrera kontatuko da, eta, kargua uztea, bestalde, dagozkion izendapenak ALHAOn argitaratu ondoko hiru egun baliodunen epe barruan hasiko da.

Baldin izendapenak zerbitzu aktiboan sartzea badakar, lanpostuaz jabetzeko epea izendapenak argitaratzen diren egunetik aurrera kontatuko da.

2. Lanpostuez jabetzeko epea, interesatuei baimenak edo lizentziak eman zaizkienean, haiek amaitzen direnean hasiko da zenbatzen.

3. Zerbitzuaren beharrizanak direla-eta, lehiatzaileak kargua utzi edo hartu beharra duen korporazioko presidentearen erabakia tarteko, aukeran izango da kargu uzteko edo karguaz jabetzeko egintza atzeratzea, gehienez ere hiru hilabetez; hala, lehiatzaileen arteko bigarrenak jakinarazi egin beharko die erabaki hori Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari eta Foru Aldundiari.

Salbuespenez, interesatuak eskabidea eginik eta arrazoi justifikatuak direla medio, aukeran izango da karguaz jabetzeko unea atzeratzea aurreko epe horrekin berorrekin, dagozkion presidentear onartutako erabakia tarteko eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari eta Foru Aldundiari jakinarazita.

**Bederatzigarrena. Destinoei ezin uko egitea. Destinoak borondatezkoak**

Esleitutako destinoei ezingo zaie uko egin, eta borondatezkoak izango dira, eta ez dute emango eskubiderik lekualdatzearen ondorioz kalte ordainik jasotzeko.

**Hamargarrena. Kargua uztea eta karguaz jabetzea**

1. Lehiaketaren ebazpenaren arabera lanpostu bat eskuratzen duten lehiatzaileek kargua utzi eta karguaz jabetzeko eginbideak jakinarazi egin beharko zaizkio Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari eta Foru Aldundiari, eginbide horiek gauzatu eta hurrengo hiru egun baliodunen barruan.

2. Karguaz jabetzeak berekin dakar lanpostuari dagozkion funtzionario betebeharrak eta eskubiak eskuratzea, eta, horrenbestez, funtzionarioa dagozkion Korporazioaren mendeko izango da.

**Hamaikagarrena. Errekurtsoak**

Lehiaketa prozeduran egindako administrazio egintzak aurkatu daitezke, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, ezarritakoaren arabera.